

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

331

Abuztuak 15, 2018

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Irungo Euskal Jira 40 urte
- 4-5** Argazki erreportajea: Irungo Euskal Jira
- 6** Bidasoa folk jaialdia
- 7** Maria Jimenez idazleari elkarrizketa
- 8** Kirolak: Borja Estomba, Sellako jaitzieraren irabazlea
- 9** Kirolak: Lekaenea Mahi-tenis kluba
- 10** Erreportajea: Etorkinak
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Moskuko jaiak
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA



caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM



AGUIRRECHE DURQUETY, CARLOS



REF: 1474

Musikaria 1912 urteko maiatzaren 12an jaio zen Zumarragan. Herriko Bandako zuzendaria zen Fermin Azpiazu aitarekin hasi zen musika ikasten. Aitak zuzentzen zuen musika bandan flautista moduan sartu zen Primitivo zazpi urte zituenean. Ostean, Donostiako Udal Musika Bandan eta Orkestra Sinfonikoan aritu zen. Irungo Udal Musika Bandako kide, zuzendari, konpositore eta moldatzailea izan zen, Udal Akademia zaharreko irakaslea izateaz gain.

Bere ibilbide profesionalean 100 partitura baino gehiago konposatu zituen era askotariko taldeentzat, Irungo bizitza herritarrera oso loturik zegoelarik. Real Union taldearen ereserkia, Euskal Jirarena, inauteriei itxiera ematen dien sardinaren ehorzketaren hileta-martxa eta Irungo Atsegiña elkartearen martxa konposatu zituen, polka eta pasodoble ugari sortzeaz gain. 1990 zendu zen Primitivo Azpiazu. Irunen plaza bat dauka bere izenarekin.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



40 urteetako historia

Irungo Euskal Jiraren atzean



REF: 11234



REF: 50402 - 1931. urtea



REF: 50400 - 1931. urtea



REF: 11211



REF: 50403 - 1931. urtea



REF: 11230



REF: 39561 - 1980. urtea



REF: 27798



REF: 39582 - 1981. urtea

Abuztuaren 4ean, larunbatean, ospatu zen urtero moduan Irungo Euskal Jira. Festa abuztuko agendako data garrantzitsuenetako batean bihurtu da. Trikitixa eta panderoen doinuen erritmora eta gurdiak tiratzen dituzten idien pausuari jarraituz, Irungo hiriari aurpegia eraldatzen zaio arratsalde batez. Iraganeko ohiturak berreskuratzen dira, Irungo kaleetan euskal kulturari tarte egiteko.

Aurtengo edizioarekin Irungo Euskal Jirak bere 40. edizioa ospatu du. Denbora pasa den arren, gauza gutxi aldatu dira. Iñaki Olazabal Irungo Euskal Jirako presidentek gogoan du bera txikia zenean bi Euskal Jira antolatzen zirela; bata umeentzat eta bestea, berriz, helduentzat. Egun, ordea, Euskal Jira bakarra ospatzen da eta, bertan, festaz disfrutatzeko gogo duen edozeinek parte hartu dezake, familia zein lagun giroan.

Urte batetik bestera, geroz eta jende gehiago animatzen da baseritar jantzia armairutik atera eta Irungo kaleetan zehar saltoka ibiltzera. Iñaki Olazabal Euskal Jirako presidentek azaldu du, "oso zaila da Euskal Jiran parte hartzen duen jende kopurua neurtzea". Izan ere, parte-hartzaileez gain, ibilbidean zehar espaloietan jende asko pilatzen da, festa beste ikuspuntu batetik disfrutatzeko. Egunaren amaieran, Urdanibia plaza ere jendez gainezka egon ohi da.

Berrikuntzen urtea

40. urteurrenarekin batera, ekintza berriak gehitu dira Euskal Jiraren programan. Ostiral gaueko Irungo Musika Bandaren kontzertuan Aiko musika taldearen kolaborazioa, ostiral zein larunbatean haurrentzako puzgarriak eta larunbat gaueko Bide Batez taldearen kontzertua izan dira nobedade nagusiak. Iñaki Olazabal presidentearen hitzetan, "nobedadeak datozen urteetan mantentzea gustatuko litzaiguke, dirua izanez gero".

Eguraldia bidelagun

Presidenteak azaldu duenez, eguraldiak parte hartzaile kopuruan eragin handia du, eguraldi onarekin jende gehiago animatzen baita jain parte-hartzera. Azken urteetan, eguraldi txarra eta euria Euskal Jiran protagonista izan dira. Aurten, ordea, eguzkia eta beroa elkartu dira festari merezitako arrera egiteko. Itzala eta edari freskoak ezinbestekoak izan dira aurtengo Euskal Jiraz disfrutatzeko.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

Irungo



EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



o Euskal Jira



Neumáticos **txepetxa** 

**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



Bidasoa Folk jaialdiak nazioarteko musikaz beteko du Bidasoako eskualdea

XVIII. Bidasoa Folk jaialdia ospatuko da abuztuaren 17tik 19ra. Folk musika eta musika garaikidearen munduan erreferenteak diren musika taldeek kontzertuak eskainiko dituzte Irun, Hondarribia eta Hendaian. Kontzertuak aire zabalean izango dira eta sarrera dohakoa izango da.

Guztira, hiru izango dira Bidasoa Folk jaialdiaren XVIII. edizioan parte hartuko duten taldeak. Jaialdiak irauten duen hiru egunetan zehar, musika zaletuek doinu kanariar, marokoar eta irlandarrez gozatzeko aukera izango dute. Miguel Angel Paezek, Irungo udaleko ordezkariak, adierazi du, "hemezortzi urte daramatzagu balio kultural handia duen eta bestelako jaialdietan agertu ohi ez den musika estilo baten aldeko apustua egiten".

"Los Sabadeños" taldea izango da jaialdiaren edizio berri honi hasiera emango dion taldea. Talde kanariarraren kontzertua abuztuaren 17an, ostiralean, izango da Hondarribiko Arma plazan, gaueko 21:30etan. Duela 50 urte baino gehiago sortutako talde hau 31 musikari eta abeslariz osaturik dago egun. Taldearen kontzertuetan folklore kanariarreko abestiak, egokitutako abestiak eta taldearen abesti propioak entzun daitezke.

Jaialdiaren bigarren egunean, Sharon Shannon abeslariaren txanda izango da. Abeslari irlandarrak Irungo Urdanibia plazan arituko da abuztuaren 18an, larunbatean, gaueko 21:00etan. Bere emanaldietan artista akordeoia, biolina eta flauta bezalako instrumentuez baliatzen da kutsu irlandarreko doinuak sortzeko. Doinu irlandarrak, ordea, musika klasikoa, bretoaia, reggaea edo hip hop musika estiloekin nahasten ditu artistak.

Abuztuaren 19an, igandean, "Dyaa Zniber & Group Patrimoine de la Musique Andalouse Marocaine" taldeak itxiera emango dio jaialdiari. Kontzertua Hendaiaiko Sokoburu plazan izango da eta arratsaldeko 20:30etan hasiko da. Talde marokoar honek, beste gauza batzuen artean, penintsularen okupazio musulmanaren garaian garatu zen musika estiloa berreskuratu du.

18 urte kalitatezko musikaz gozaten
Aurtengo edizioarekin Bidasoa Folk jaialdiak 18 edizio ospatuko ditu. Jaialdia ospatu den urte guztietan badiaren kultura arteko izaera nabarmendu nahi izan da, mundu osoko musikaren bitartez. Helburu hori lortzeko, eskualdeko udalek esfortzuak bateratzen dituzte nazioarteko mailako kalitatezko taldeak ekarri, hiritarrei dohaineko kontzertuak eskaini eta bisitariak erakartzeko agenda interesgarri bat eratuz.



MARIA JIMENEZ, idazlea:

“Denbora asko eskaini diot liburuari denboran zehar”

Maria Jimenez Goya idazleak uztaileko hilabetearen amaieran aurkeztu zuen “One” eleberria, bere lehen literatur lana. Liburua Irunen Kiosko 33 eta Bronte liburu-dendan, Hondarribian Arzun eta Beran Igone liburu-dendan eskuratu daiteke. Hortaz gain, Amazon bidez paperean edo ebook formatuan lor daiteke. Gainera, Hondarribi, Bera eta Irungo Dunboa auzoko liburutegietan maileguan eskura daiteke.

Zein istorio kontatzen du “One” eleberriak?

Bi istorio kontatzen dira aldi berean. Bata, gaur egungo istorio bat, batez ere, Hondarribian kokatzen dena eta, bestea, 1813 urtean Bortzirietan gertatua, gerra garaian.

Nolatan bururatu zitzaizun istorio hau idaztea?

Atal historikoan Independentzia Gerran zonaldean jazotako gertaera batzuk kontatzen ditut. Gure inguruan gariko aztarnak gelditzen dira eta hortik abiatu zen liburuaren istorioa, nire kuriositatearen ondorioz.

“Nire lehen arrakasta liburua kaleratu ahal izatea izan da”

Nola sentitzen zara zure lehen lana kaleratu ostean?

Oso pozik sentitzen naiz. Nire lehen arrakasta liburua kaleratzea izan da. Hala ere, hasieran idaztetik publikora pasatzea kostatu zitzaidan.

Inoiz imajinatu zenuen liburu bat kaleratuko zenuenik?

Imajinatu bai, txikitatik. Irakurle zale amorratua naiz eta txikitatik asko irakurri dut. Betidanik buruan izan dut liburua idaztea. Hala ere, bizitzan gauza asko egin behar ditugu eta momentua iritsi zait nahiko heldua naizenean.

Nola antolatu zara liburua idazteko?

Denbora asko eskaini diot liburuari denboran zehar. Izan ere, bi urte eman nituen istorioa pentsatzen eta bost idazteko prozesuan. Guztira, zazpi urte behar izan ditut, baina, gehien kostatu zaidana zuzentzea izan da.

Zaila da egun liburu bat argitaratzea?

Gaur egun dauden tresnekin liburua argitaratzea oso erraza da, lehen baino errazagoa. Atal zailena ondo idaztea da. Argitalpena ahalbidetzen duten online tresna asko daude eta nik Amazon aukeratu dut, eskaintzen dituen erraztasunengatik.

Zonaldeko honetako istorioa kontatzea berezia izan da zuretzat?

Bai, ni hemengoa naiz eta Bidasoa eta Bortziriak eskualdeak oso loturik egon dira beti niretzat familiarengatik. Gainera, irakurleentzat ere bertan gertaturiko istorioa irakurtzea interesgarri izan daitekeela uste dut.

Etorkizunean beste libururen bat publikatu nahiko zenuke?

Orain nobela bat idaztea lortu dudanez, ez dut gelditu nahi. Idazten jarraituko dut. Bizpahiru nobela dauzkat buruan, batzuk idazten hasiak ere, baina, oraindik ez dut erabaki zeinek hartuko duen indarra.





BORJA ESTOMBA, piraguista:

“Ez dago Sella bezalako probarik”



Bi urteetan bigarren postua eskuratu ostean, Sellako Nazioarteko Jaitsieran K1 kategorian lehen postua lortu du aurten Borja Estomba irundarrak. Garaipen berezia izan da, izan ere, epaileek, historian lehen aldiz, lehen postua bi kirolarien artean partekatzea adostu dute, Guillermo Fidalgo eta irundarra helmugara une berean iritsi ostean.

Nola sentitzen zara Sellaren Nazioarteko Jaitsiera irabazi ostean?

Poz izugarri sentitzen dut. Edozein piraguistarentzat proba handi bat da. Ez dago Sella bezalako probarik.

Nola gogoratzen duzu egun hori?

Arraroa izan zen, helmugara iritsi ginean ez zegoen argi nork irabazi zuen. Lehen momentuan garaipena niri ematen zidatela entzun nuen, baina, telebistan bi-

garren bezala agertu nintzen. Horregatik, azken momentura arte zalantzarekin egon ginen.

Azkenean garaipena bien artean banatu beharko duzue?

Bai, horrelako zerbait gertatzen den lehen aldia da. Bi txipek denbora berdina markatzen zuten, nahiz eta egia den bakoitzak txipa leku desberdinetan jar dezakegula.

“Ibaia ondo ezagutzen dudala uste dut”

Garaipena ospatzeko denbora izan duzu?

Orain oporretan noa, beraz, ez dut denbora askorik izan. Egunean bertan Iru-dik joan ziren lagun batzuekin ospatu nuen eta oso polita izan zen.

Aurreko urteetako esperientzia lagungarria izan zaizu?

Bi aldiz bigarren postua lortu dut, beraz, ibaia ondo ezagutzen dudala uste dut. Hortaz, egun ona izan nuen eta jaitsieran ez nuen arazorik izan.

Lehen postua lortzeko entrenamendu berezirik egin duzu?

Ez, urteroko prestaketa berdina. Aldaketa bakarra dieta izan da, aurten zorrotzagoa izan naiz eta pare bat kilo galdu ditut probaren aurreko hilabeteetan.

Ibaiaren egoera lagungarria izan zitzaizun garaipena lortzeko?

Aurten ibaia errez zegoen, ur asko zegoelako eta, horrek, pasatzeko aukera gehiago sortzen ditu. Ibai horrela ikustea gustatzen zait, ur askorekin, azkarra eta teknikoa.

“Aurten ibaia errez zegoen, ur asko zegoelako”

Zein gauza eduki behar dira kontuan horrelako proba batean postu ona lortzeko?

Hiru gauza: elikadura, entrenamendua eta deskantsua.

Etorkizunean berriro Sella jaisten eta irabazten ikusiko zaitugu?

Irabazten ez dakit, baina, Sella jaisten se-guru, asko gustatzen zaidan ibai bat delako. Ikusiko dugu K2n edo berriro K1ean jaitsiko dudana.

Ekintza ezberdinez beteriko uda Leka-Enean klubean

“Geroz eta jende gehiagok ezagutzen gaituela nabaritu dugu”

“Garrantzitsuena ondo pasatzea da eta, hortik aurrera, jolasten ikastea”

Maria Rubio, Leka-Enea klubeko komunikazio arduraduna



Udara aukera bikaina da etxeko txikiek kirol berriak ezagutu eta praktika ditzaten. Aukera hori aprobetxatzeko, Leka-Enea mahai-tenis klubak ekintza ezberdinez bete ditu udako hilabeteak. Uztaileko hilabetean zehar ludoteka izan zuten martxan eta abuztuko hilabeterako Udako ikastaroak prestatu dituzte.

Uztaileko hilabetean Ludoteka antolatu duten bigarren urtea izan da hau. Maria Rubiok, Leka-enea klubeko komunikazio arduradunak, positiboki baloratu du Ludotekaren bigarren edizioa. “Geroz eta jende gehiagok ezagutzen gaituela nabaritu dugu”. Goizeko 9:30etatik 13:00ak arte umeek ekintza ezberdinetan parte hartzen dute, mahai-tenisaz gain, esku-lanak, txangoak edo erraketaz jokatzen diren bestelako kirolak probatzen dituzte.

Abuztuko hilabetean zehar, berriz, Udako ikastaroak izango dituzte martxan. Irungo Udalarekin batera anto-

latzen dituzten ikastaro hauek bi asteko iraupena dute. Astelehenetik ostiralera ordu eta erdiko iraupena duten ikastaroetan haurrek mahai-tenisera jolasten ikasten dute, lagun berriak egiten dituzten bitartean.

Udako ikastaroetan parte-hartzeko ez da maila zehatzik behar. Izan ere, ikastaroetan maila desberdina daukaten umeak biltzen dira. Hau da, badira inoiz mahai-tenisean jolastu ez duten umeak edo klubeko bazkideak direnak eta, normala den bezala, maila altuagoa dutenak. Maria Rubio, Leka-enea klubeko komunikazio arduradunak, azaldu du, “garrantzitsuena ondo pasatzea da eta, hortik aurrera, jolasten ikastea”.

Kurtso berrirako prestaketa lanak

Udako ikastaroak oraindik martxan badaude ere, Leka-enea klubean irailaren 10ean hasiko den kurtsoan pentsatzen hasi dira. Inskripzio epea zabalik dago jada eta

lehen interesatuek izena eman dute jada. Maria Rubiok adierazi duenez, udako ikastaroetan parte hartu duten ikasle asko animatzen dira hurrengo kurtsoan izena ematera.

Leka-enea klubak lau urte daramatza Olaketa kalean kokatutako instalazio berrietan. Komunikazio arduradunak azaldu duenez, instalazio aldaketa egin zenetik, ikasle kopurua bikoiztu da, umeen zein helduen kasuan. Datorren ikasturtean klubaren barne-antolakuntza aldaketa txiki batzuk gertatuko direla aurreikusi du Rubiok, kurtso batetik bestera ikasleek maila hobetu heinean, kategoriaz aldaketak gertatzea ezinbestekoa delako.

Trantsizio egoeran aurkitzen diren etorkinentzako premiazko laguntza



Uztailaren 25etik SOS Arrazakeria Bidasoako gizarte-mugimenduak Irunen trantsizio egoeran dauden etorkinen zainketaz arduratzen ari da. Eskualdeko beste erakunde eta boluntarioen laguntzari esker etorkinei egunero janaria, orientazioa, osasun-laguntza eta dutxatzeko aukera bermatzen diete, Udalak eskainitako zerbitzuak osatzeko.

Paperik gabeko etorkinen zenbakia etengabe hazi da azkeneko asteetan Irunen, Frantziako estatuak etorkinak kanporatu eta mugaren beste aldera itzuli ostean. Uztaileko hilabetearen bukaeran Irungo Tren Geltokiaren inguruan aurkitzen ziren etorkinei laguntza eskaintzeko beharraz ohartu zen Sos Arrazakeria Bidasoa. Laguntza ematen hasi ziren unetik 500 bazkari baino gehiago banatu dituztela kalkulatu du gizarte-mugimenduak.

Udalak trantsizio egoeran dauden pertsonentzako 24 ohe prestatu ditu, neguko gau hotzetan etxegabeei zabaltzen zaien espazioan. Hortaz gain, astelehenik ostiralera gosaria eta bazkari ematen zaie. Sos Arrazakeria Bidasoa gizarte-mugimendua egunero pertsonai horiei afaria eta, asteburuetan, dutxatzeko aukera zein eguneko 3 bazkariak emateaz arduratzen da, bete gabe gelditzen diren zerbitzua osatzeko asmoz.

Sos Arrazakeria Bidasoa gizarte-mugimenduaren bitartez etorkinen beharrak asetzeko lanean ari diren pertsonak boluntarioak dira. Irundar boluntarioz gain, Irungo La Kaxita, Pausoka Dantza Taldea, Gurutze Gorria, Hondarribiko Abarka Jatetxea, Donostiako La Cuchara, Zaporeak Elkartea, Gipuzkoako Elikadura Bankua, Adiskidetuak, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Helduak Elkartea Irunen trantsizio egoeran dauden pertsonen beharrak asetzeko lanean ari dira.

Irungo Udalaren erantzuna

Irungo Udala Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean ari da Irunen trantsizio egoeran aurkitzen diren etorkinen egoerari aurre egiteko. Irungo Udalak azaldu duenez, Gipuzkoan, guztira, etorkinei zerbitzua eskaintzeko 50 plaza daude, 25 Donostian eta 25 Irunen. Gainera, beharrezkoa balitz, kopurua 70 plazetaraino zabaltzeko aukera legokeela jakinarazi du Udalak.

Premiazko beharrak

SOS Arrazakeria Bidasoa gizarte-mugimenduak jakinarazi du gizonentzako udako arropa, mudak, oinetakoak, motxila eta biserak biltzen ari direla. Arropak Kale Nagusiko 14. zenbakian biltzen dituzte astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak arte. Era berean, eskualdeko taberna, jatetxe eta arropa dendei soberakinak jasotzeko prest daudela adierazi diete 688 812 330 telefonoan jakinaraziz gero.



Txingudi HH



Denborapasak

Bost fruitu

A	D	G	I	E	O	B	E	D	C	J	G	Y	E	P	U
W	I	E	D	F	A	L	M	A	H	A	T	S	A	C	M
L	E	R	S	R	A	Q	T	N	A	B	L	L	E	O	G
J	Y	E	H	H	M	D	E	H	B	O	E	V	I	P	L
U	Y	Z	J	E	O	J	Q	V	U	E	N	C	U	U	Q
M	A	I	K	E	N	R	U	I	E	O	N	P	K	A	E
V	O	A	S	C	A	L	C	W	G	D	T	U	I	A	Z
G	J	M	A	R	R	U	B	I	A	B	S	C	A	D	F
U	H	C	G	Q	O	I	Y	E	E	E	C	O	S	C	G
V	R	U	A	Z	U	S	B	M	U	P	H	V	L	J	C
E	G	E	R	L	V	U	M	Y	C	G	U	X	L	M	L
I	I	E	R	I	V	G	Y	Y	A	U	H	H	X	Y	
G	C	E	A	U	B	H	F	M	A	N	C	J	M	B	A
F	Q	N	D	E	C	X	V	O	X	T	T	R	P	X	U
P	E	C	V	M	I	A	M	I	Q	R	U	R	B	U	O
U	Q	U	G	O	S	A	L	A	R	A	N	J	A	T	E

		3		6		7	2	4
	2		7		4	8		
					5	6		
					6		5	8
			4				3	
		4	5		3		7	6
8	7		3	4		9		
			6				4	
3				2			8	

Gerezia, Laranja, Mahatsa, Marrubia, Sagarra

Euskaraz, Irunen barrena

Erriko festetan

Esaten dio neska batek beste bateri:

- Biar San Bartolome eta soñokua denda.

Eta bestiak esaten dio:

- Okerrago zion, gure itxian, biar San Bartolome eta artorik ez itxian.

Hondarribiko Portuko J. Intxausti Aizpiolea, 12 urteko haurrak kontatua (1959-XI16). (El Bidasoa, 1960-II-13)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Belaskoenea LH3

Itsaso eta Diema

Behin batean Izar izeneko neska bat paseoa zihoan Itsaso ondoan. Halako batean, neska bat ikusi zuen etxe batean, oso triste. Etxe hartan giltzatuta zegoen, atera ezinik. Diema izena zuen neskak, eta esan zion etxera sartzeko. Diemak esan zion Izarri ez zela gogoratzen zen nola iritsi zen etxera.

Momentu hartan, gizon gaizkilea agertu zen, eta neskak korrika atera ziren etxetik. Izarren amonaren etxera joan ziren. Etxea mendian goian zegoen, eta uste zuten gaizkilea ez zela hara joango. Baina ilundu zenean, gauean, gaizkilea agertu zen kanpoan. Trumoiak entzuten zituzten Izarrek eta Diemak, eta oso beldurtuta zeuden.



Izarrek telefonoz poliziarri deitu zion. Polizia etorri zen eta gaizkile maltzurra atxilotu egin zuen.

Izar eta Diema oso pozik geratu ziren, eta betirako lagun onak izan ziren.

BELASKOENEA ESKOLA- 3.ZIKLOA



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Dena prest dago abuztuaren 16tik 19ra Moskuko Jaiak ospatzeko

Abuztuaren 16tik 19ra ospatuko dira Moskuko jaiak. Autodefentsa tailer feministaren antolakuntza da aurtengo jaietako nobedade nagusia. Uranzuko frontoiaren lanak direla eta, aurten kirol arloaren hutsunea nabaritu da jaietan, ez baita Pala txapelketarik egongo.

Autogestionatutako jaiak urtero biltzen den asanbladaren bitartez antolatzen dira. Oihan Portos, asanbladako kideak azaldu du, azken urteetan asanbladaren barnean generazio-aldaketa bat gertatu dela eta generazio berriei asanbladara hurbiltzea kostatzen ari zaiela. Hala ere, txosnan lortutako irabazi, lan boluntario eta auzoko taberna eta negozioen laguntzari esker, Moskuko jaiak ospatuko dira berriro ere.

EGITARAUA:

Abuztuak 16, osteguna:

16:00 - Autodefentsa tailerra.
19:00 - Txosna irekiera.
20:00 - Hitzaldia errefuxiatuak.
21:00 - Kontzertuak. Velozet eta Trini Fox.

Abuztuak 17, ostirala:

18:00 - 2. Eskuko azoka.
20:00 - Dantza saioa.
21:00 - Kontzertuak: Joseba Irazoki ta lagunak, Tooth eta Jupiter Jon.

Abuztuak 18, larunbata:

12:00 - Ardo daztaketa itsua txosnan.
14:00 - Bazkaria.
16:00 - Soinu sistemaren hasiera: Dj Wild Value.
17:00 - Bertso poteoa.
19:00 - Zozongo batukada.
23:00 - Low Bass gaua: Selecttah Stepi eta North Bass.

Abuztuak 19, igandea:

11:00 - Ham Jolasak.
13:00 - Tortilla txapelketa.
16:00 - Mus txapelketa.
18:00 - Bertso saioa.
19:00 - Claun Ahiza.
20:00 - Kontzertuak: Zo Zo eta Lola Frigida.

Berrindarturik datoz Ama Xantalen auzoko jaiak

Ama Xantalen auzoko jaiak abuztuaren 17 eta 18an ospatuko dira. Urte askoren ostean Danborradak auzoko kaleak zeharkatuko ditu. Bestetik, Ama Xantalen auzoko ermitaren inguruan ekintza ugari antolatu dira.

Jaiak abuztuaren 17an, ostiralean, abiatuko dira, Ama Xantalen ermita barrutik ezagutzeko doako bisita gidatuekin. Lehen bisita 17:00etan hasiko da eta euskaraz izango da. Bigarren bisita gidatua, berriz, 18:00etan izango da eta gazteleraz egingo da. Honen ostean, arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara bitarte, ermitaren ateak irekiko dira eta sarrera libre izango da.

Abuztuaren 18an, larunbatean, eguna goizeko 8:30etan hasiko da txistulariek auzoko kaleetan joko duten diana-rekin. Goizeko 10:00etan ermita irekiko da, sarrera librearekin, eta 11:30etan meza egongo da, Atzokoak abesbatzaren parte-hartzearekin. 12:20etan, Ermitako plazatxoan, V. Txapelaundi Saria Banatuko da, 12:30etan janaurrekoa eta musika hasi aurretik. Azkenik, arratsaldeko 19:00etan Danborradak auzoko kaleak zeharkatuko ditu erraldoi, buruhandi eta txarangaren konpainian.





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Indarkeria matxistaren aurkako jarrera bultzatzeko argazki lehiaketak

Medicus Mundi Gipuzkoak "Gazteak indarkeria matxistari aurre egiten. Mugak zeharkatzen dituen lehiaketa" antolatu du. Indarkeria matxistaren espresio guztien aurka gazteak motibatzea da lehiaketa honen helburua.

Baldintzak

Argazki lehiaketaren 3. edizio honetan 14-25 urte bitarteko gazteek parte hartu ahalko dute. Gazteek haien Instagram kontuetan maitasun edo sexu-harremantetan jarrera positiboak erakusten dituzten argazkiak publikatu beharko dituzte #NoesnoEdonon eta #NoesnoEverywhere traolak erabiliz. Abuztuaren 31era arte lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik egongo da.

Irabazleentzako sariak

Bi sari izango dira. Alde batetik, lehen saria 300 eurokoa izango da eta epaimahai batek erabakiko du zein izango den argazki irabazlea. Bigarren saria, berriz, 150 eurokoa izango da eta sare sozialean "atsegin dut" gehien jasotzen dituen argazkiak irabaziko du.

Ordaindutako praktikak Europako Eskualde Batzordean

Europako Eskualdeen Batzordeak (CDR), urtero bezala, bost hilabeterako ordaindutako praktikak atzerrian egiteko aukera eskaintzen du. Praktikak, 2019ko otsailaren 16tik ekainaren 15era izango dira.

Izen-ematea

Unibertsitate graduatuek 2018 urteko apirilaren 1etik irailaren 30era arte izen-emate epea zabalik izango dute. Interesatuak haien eskaerak online bidali beharko dituzte, CDRaren web-orrialdean dagoen formulario bat betez.



Gipuzkoako LGTBI+ kolektiboaren errealitatea ezagutzeko ikerketa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Planaren bitartez bultzatu duen ekimen bat da. Era azkar eta anonimoan erantzun daitekeen online galdetegi baten bitartez Gipuzkoan bizi diren LGTBI+ kolektiboko pertsonen bizi duten errealitatea ezagutu nahi da. Galdera irekiez osaturik egongo den galdetegia zabaltzeaz gain, hainbat aditu eta aktibistek elkarrizketak egingo zaizkie eta zenbait eztabaida talde antolatuko dira.

Helburua

Aniztasun eta diskriminazio ezaren baloreak sustatzea eta herritar guztien arteko berdintasuna bermatzea.

Epea: Azterlana orain hasi eta urte amaierara bitarte egingo da.

Galdetegiaren izena: Gipuzkoako LGTBI+ errealitateen diagnostikoa.

Igazte edo Martindozenea Gaztelekuaren webgunean topatu daiteke galdetegia erantzuteko esteka.

urtzi goi gana

INMOBILIARIA

 <p>Pisua salgai Nafarroa Hiribidean: 82 m²-ko azalera, 3 logela, bainugela berritua, egongela, sukaldea, igogailua. Ref: VIP03 / Prezioa: 146.000</p>	 <p>Triplexa salgai Palmera-Monteron: 270 m²-ko azalera, 5 logela, 3 bainugela, 50 m²-ko egongela, igogailua, terrazak. ARGITSUA. Ref: VIPM01 / Prezioa: 590.000</p>	 <p>Pisua Bentak auzoan: 70 m²-ko azalera, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea, igogailua, balkoia. LEKU LASAIA. Ref: VIP02 / Prezioa: 134.000</p>
 <p>Pisua Lapitze auzoan: 70 m²-ko azalera, 2 logela, bainugela, egongela, sukalde handia, balkoia, bosgarren solairua. BISTA POLITAK. Ref: VIP01 / Prezioa: 118.000</p>	 <p>Pisua Anakan salgai: 70 m²-ko azalera, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. LEKU LASAIA eta ARGITSUA. Ref: VPI12 / Prezioa: 130.000</p>	 <p>Pisua salgai Udaletxe ondoan: 80 m²-ko azalera, 2 logela, 2 bainugela, igogailua. Aparkalekua eta trastelekua erosteko aukera. ERAIKIN IA BERRIA. Ref: VPI04 / Prezioa: 259.000</p>
 <p>Pisua Puianan salgai: 65 m²-ko azalera, 2 logela, bainugela, egongela eta sukaldea. APARKALEKUA ETA TRASTELEKUA barne. Ref: VIP20 / Prezioa: 233.000</p>	 <p>Pisua Curtidores kalean salgai (Belaskoenea): 65 m²-ko azalera, 2 logela handi, bainugela, egongela, sukaldea eta balkoi itxia. LASAIA, EGOERA ONEAN. Ref: VPI12 / Prezioa: 135.000</p>	 <p>Etxea Lapitzen salgai: 190 m², estudio oso bat, 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela handia, terraza, lorategia, aparkalekua. BISTA POLITAK. Ref: VC21 / Prezioa: 400.000</p>

661 875 785

www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu/

Alkoria / Salmenta / Eraginkortasun Energetikoaren Zuzlaginak / Arkitektura zerbitzuak / Home Staging zerbitzuak (erabiltzaren alantza) Zure etxebizitzaren eraberritzea, Eraginkortasun Energetikoaren Zuzlagin eta Home Staging zerbitzuak onen eduki dituzte (kontsumatu baldintzeki)

Abuztuak

17

Izar behaketa Erlaitzen

Non: Aiako Harrien Parke Naturalean zehar.

Ordua: 21:30etan. Biltze lekua: Lapuriturriko informazio gunean.

Prezioa: Doakoa.

Gomendioak: Gaue-rako arropa egokia, mendian ibiltzeko oinetakoak, linterna eta prismatikoak eramatea gomendatzen da.

19

Arkeolab arkeologia tailerra haurrentzat

Non: Oiasso Erromatar Museoa.

Ordua: 11:00-12:30.

Prezioa: Ume bakoitzak 4€ ordaindu behar harko ditu. Umeak laguntzen doazen helduentzako sarrera doakoa izango da.

24

Kontu kontari haurrentzat musikarekin

Non: CBA Udal Liburutegia.

Ordua: 12:00.

Sarrera: Doakoa.

Adina: 2-8 urte.

Hizkuntza: Euskaraz.



Denborapasen emaitzak

A	D	G	I	E	O	S	E	D	D	J	G	Y	E	P	U
W	I	E	D	F	A	L	M	A	R	A	T	S	A	C	M
L	E	R	S	R	A	O	T	N	A	B	L	L	E	O	G
J	Y	E	H	M	D	E	H	B	O	E	V	I	P	L	
U	Y	Z	J	E	O	J	Q	V	U	E	N	C	U	U	Q
M	A	I	K	E	N	R	U	I	E	D	N	P	K	A	E
V	O	A	S	C	A	L	C	W	S	D	T	U	I	A	Z
G	J	M	A	R	R	U	B	I	A	B	S	C	A	D	F
U	H	C	G	O	D	I	Y	E	E	E	C	O	S	O	G
V	R	U	A	Z	U	S	B	M	U	P	H	V	L	J	C
E	G	E	R	L	V	U	M	Y	C	G	U	X	L	M	L
I	I	E	R	I	V	G	Y	A	U	H	H	R	X	Y	
G	C	E	A	U	B	H	F	M	A	N	G	J	M	B	A
F	Q	N	D	E	C	X	V	O	X	T	I	R	P	X	U
P	E	C	V	M	I	A	M	I	Q	R	U	R	B	U	
U	Q	U	G	O	S	A	I	A	R	A	N	J	A	T	E

1	5	3	8	6	9	7	2	4
6	2	8	7	3	4	8	1	5
4	8	7	2	1	6	6	9	3
7	3	2	1	9	6	4	6	8
5	6	8	4	7	2	1	3	9
9	1	4	5	8	3	2	7	6
8	7	5	3	4	1	9	6	2
2	9	1	6	5	8	3	4	7
3	4	6	9	2	7	6	8	1

25

"SHIRLEY DAVIS & THE SILVERBACKS"

Non: Urdanibia plazan

Ordua: 22:00.

Prezioa: Doakoa.

Musika-estiloa: R&B/Soul

30

"Lee Junior" taldearen Kontzertu akustikoa

Non: CBA Udal Liburutegia.

Ordua: 19:00.

Prezioa: Doakoa.

Musika-estiloa: Rock&Roll (Country, Swing, Blues...)

31

Zinema Kalean "Nur eta heren-sugearen tenplua"

Non: Junkal plazatxoa.

Ordua: 22:00.

Prezioa: Doako sarrera.

Iraupena: 67 minutu.

2019^{an} ezkonduko zara?



ezagutu
gure lanak
kode hau
eskaneatuz

Estudio
Gover 

Ezkontza argazkilariak

Letxunborro hiribidea 100,2,
20305 Irun (gipuzkoa)

943 840 113 - 647 930 484

hola@fotogoverbodas.com

www.fotogoverbodas.com